

GIG 45

LASTURKO POLJEA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Olatzeko haranarekin batera, Lastur ere eredu bikaina da jatorri karstikoko poljeak edo haran itxiak nolakoak diren ikusteko. Olatzekoa ez bezala, baina, haranaren beheko aldea –Lastur Behea deritzona (errotatik beherako eremua)– luzanga da hemen, NW-SE norabidekoa, eta egiturak berak eraginda eratu da hala, sakonean dagoen norabide bereko faila bat tarteko dela, zehatz esatera; failak, izan ere, erraztu egiten du arroka disolbatzea. Haranaren hondoa (Lastur Behea, alegia) deskaltzifikazio-sedimentuz estalita dago, eta 3,1 km inguru da luzean, zuzen neurtuta, eta batez beste 150 metro, zabalean.

Betekin sedimentarioa xeheatasunez aztertuta, gainazal eseki bat bereiz daiteke, paleopoljea gorago zegoeneko antzinako maila batekin lotua. Zenbait lekutan harribilak ere ikusten dira gainazal esekian, antzina Lasturko erreka gaur egun baino zenbat gorago igarotzen zen seinale garbi.

Gaur egun, paleopoljearen gainazal hori oso zulatuta daukate haranarekin lerrotatuta dauden sarbegi eta dolina ondo ordenatu ugariak. Zulaketa hori maila freatikoa jaitsi izanarekin lotuta dago, inondik ere; horrek behartuta, izan ere, erreka ahokatu eta Abeletxe baserriaren inguruetan infiltratu egin zen, eta horrek dolina lerrotatuen multzoa sorrarazi zuen gune horretatik beherantz, batik batik Arruanzar baserriaren inguruetan. Han, dolinak benetan ikusgarriak dira: 75 metro inguruko diametrokoak, eta batzuk, 25 metroko sakonerakoa.

NOLA BERTARATU

Sasiola auzoan Gi-3292 errepidea hartu behar da, eta gero, haranean aurrera jarraitu, errotaraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Errepidean bertan GIG hau ondo ikusteko zenbait leku daude. Hauek dira azpimarragarrienak: haranaren ikuspegi orokor bat izateko, Kortaberri baserria; dolinen lerrotadura ikusteko, Arruanzar baserria; eta Lastur erreka sarbegi nagusia ikusteko, Abeletxe baserria.



Dolinen lerrotadura, Arruanzar baserriaren inguruetan.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
X= 552347 m / Y= 4790261 m / Alt.= 110 m



Errekaren sarbegi nagusia, Abeletxe baserriaren inguruetan.